



FACULTAD DE BELLAS ARTES
ARTE EDERREN FAKULTATEA

GRADU AMAIERAKO LANA (GRALa) EGIN ETA DEFENDATZEARI BURUZKO ARAUTEGIA

KULTURA ONDAREEN KONTSERBAZIO ETA ZAHARBERRITZEARI BURUZKO GRADUA¹

ARTE EDERREN FAKULTATEA

¹ 2020ko uztailaren 17an Fakultateko Batzarrean onartua.



ZIOEN AZALPENA

Dokumentu hau 2017ko urriaren 11n onartu zen Ikastegiko Batzarrean, eta 2014ko abenduaren 12an onartutakoa ordezkatzeko du. Haren helburua da Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharbertzeari buruzko Gradu Amaierako Lanaren ezaugarriak eta berezitasunak egokitzea Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean Gradu Amaierako Lana Egin eta Defendatzeari Buruzko Arautegi berrira. Arautegi berri hori 2015eko martxoaren 12an onartu zuen UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak eta 2015eko apirilaren 13an argitaratu zen EHAAn, eta ordezkatzeko du UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2012ko maiatzaren 16an onartutakoa, 2012ko ekainaren 19an EHAAn argitaratu zena.

Dokumentu honetan jasotzen dira GRALaren definizioa eta bete behar diren jarraibideak haren prestaketan, defentsan, kalifikazioan eta tramitazio administratiboan. Arautegi hau osatzen da UPV/EHUko «Graduko Ikasketen Gestiorako Arautegia»n jasota dauden beste arau eta prozedurekin, alegia, ebaluazio sistema, kredituen aitortpen eta transferentzia eta ikasleen mugikortasuna gobernatzen dituzten arauekin.

1. artikulua. GRALaren HELBURUA ETA IZAERA

- 1.1.** . Gradu Amaierako Lana da ikasle bakoitzak, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean, egin behar duen bakarkako memoria, azterlan, edo txosten originala, graduan landutako gai baten edo gehiagoren inguruan.
- 1.2.** Lanak modua eman beharko dio ikasleari titulazioko gaitasun orokorrak aplikatzeko, datuak bilatu, kudeatu, antolatu eta interpretatzeko, kultura ondasunen kontserbazio eta zaharbertzearen arloko gai garrantzitsuez hausnartu eta iritziak emateko eta pentsamendu eta iritzi kritikoa, logikoa eta sormenezkoa lantzeko.
- 1.3.** Ikasleak frogatu beharko du eskuratu dituela Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharbertzeari buruzko Graduak ematen dituen edukiak, gaitasunak eta trebetasunak. Horretarako, irizpide hauei jarraituz egin eta defendatuko du lana:
 - Graduan eskuratutako gaitasunak aplikatuz lana egiteko.
 - Datuak eta emaitzak sintetizatuz eta kritikoki interpretatuz.
 - Testu koherentea eta ordenatua idatziz.
 - Lanaren defentsa sendoa eginez jendaurrean puntu nagusiak bilduz, kalitateko ikus-entzunezko baliabideak erabiliz, eta modu argi eta koherentean erantzunez egiten zaizkion galderei.



- 1.4. GRALa defendatzeko eta ebaluatua izateko, ikasleak egiaztatu egin beharko du ikasketa planeko gainerako gai guztiak gaindituta dituela eta, hortaz, GRALari dagozkion kredituak izan ezik, titulua lortzeko behar diren kreditu guztiak dauzkala. Salbuespenez, GRALean matrikulatu ahal izango dira laugarren mailako irakasgai bat (=6 ECTS kreditu) gainditzeke daukaten ikasleak.
- 1.5. GRALa Jabetza Intelektualari buruzko Legearen babespean dago. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen jabea lanaren egilea izango da, GRALa esleitzeko dokumentuan bestelakorik zehaztu ez bada, ikaslearen beraren onarpenarekin eta indarreko legerian xedatutako baldintzen arabera.

2. artikulua: GRALerako IZENA EMATEA ETA DEIALDIAK

- 2.1. GRALaren matrikula unibertsitateko matrikularako epe orokorrean egingo da, lanak dituen kredituen arabera prezio publikoak ordainduz. GRALaren matrikula egiteko, ikaslea matrikulatuta egon beharko da ikasketa plana bukatzeko falta dituen irakasgai guztietan.
- 2.2. Matrikulak eskubidea emango dio ikasleari ikasturte bakoitzean bi deialdi ofizialera aurkezteko, Gobernu Kontseiluak onartutako egutegi akademikoaren arabera. Ikasturteko bi deialdietako batean (uztailean edo irailean) lana defendatu ez duten edo ebaluatua izan ez diren ikasleak berriz matrikulatu beharko dira hurrengo ikasturtean eta ostera ere ordaindu beharko dituzte tasak hurrengo deialdietara aurkeztu ahal izateko, dela urtarril-otsaileko aparteko deialdira, dela uztaileko ohikora edo iraileko ezohikora.
- 2.3. Gradu irakasgai guztiak gainditu eta gero egin behar da Gradu Amaierako Laneko matrikula, arautegi honetako 1.4 puntuan zehaztutako salbuespenarekin. Beraz, aurreko ikasturteetako ikasleak kenduta, matrikula ekainean egin beharko da, fakultateko egutegi akademikoan zehazten diren datetan.
- 2.4. Ikasleak GRALa zein hizkuntza ofizialetan egin nahi duen zehaztuko du matrikulan.
- 2.5. Ikastegiek, beren antolaketarako eta ikasketen programaziorako irizpideen arabera, GRALen defentsak ikasturtean zehar banatu ahal izango dituzte, edo bestela multzoetan bildu, ohiko eta ezohiko deialdietan bereizita. Edozelan ere, ikasleei modua emango zaie GRALeko matrikula egiteko ziur dakitenean beste irakasgai eta kreditu guztiak eginda dauzkatela.



Ikasturte bakoitzean GRALen defentsarako epeak, ahal dela, hauek izango dira:

UZTAILA: ohiko deialdia.

IRAILA: aparteko deialdia.

URTARRIL/OTSAILA: aparteko deialdia, graduako irakasgai guztiak gaindituta dauzkaten eta GRALa bakarrik geratzen zaien aurreko ikasturteetako ikasleentzat, eta arautegi honetako 1.4 puntuan aipatzen salbuespenezko kasuan daudenentzat. Matrikulazioari dagokionez, deialdi hau GRALa defendatuko den ikasturteari lotuta dago. Adibidez, 2018 ikasturtean egindako defentsa 2017/18 ikasturteari lotuta egongo da. Hortaz, graduako gainerako irakasgaiekin gertatzen den legez, GRALaren matrikulako tasak 2016/17 ikasturtean ordaintzeak ez du eskubiderik emango defentsa 2018ko urtarril-otsailean egiteko.

- 2.6. GRALaren ebaluazioaren akta unibertsitateko ebaluazio arauari jarraituz itxi beharko da eta epaimahaiko idazkariaren ardura izango da akta behar bezala egitea eta administrazio zerbitzuei helaraztea ikastegiak zehaztutako prozeduraren arabera. Ikastegiko zuzendaritzaren eginkizuna izango da artikulua honetan esandakoa bete dadin bermatzea.

3. artikulua.- TUTOREAREN ZEREGINA ETA ESLEIPENA ETA LANAREN GAIA AUKERATZEA.

- 3.1 Abenduan epea zabalduko da ikasleek GRALa egiteko eskaria egin dezaten GAURren bidez eta paperean aurkez dezaten idazkaritzan. Ikasturteko egutegi akademikoan zehaztuko dira horretarako datak. Eskarian honako hauek adieraziko ditu ikasleak gutxienez: lanaren izenburua, lanaren helburuen, metodologiaren eta espero dituen emaitza teoriko-praktikoen laburpena, eta eduki nahi lukeen zuzendaria (ikus IZENA EMATEKO formularioa web orrian). Komeni da ikasleak proiektua alde aurretik azaltzea irakasle horri tutoretza orduetan.

GRALerako gaiak ikasleek proposa ditzakete, edo Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzeari buruzko Graduako irakasleek.

- 3.2. Bigarren lauhilekoaren hasieran, sail bakoitzak tutoreak esleituko dizkie ikasleei —ahal dela ikasleen nahiak betetz, baina betiere irakasleen irakats betebeharrak eta irakats eskaintza kontuan hartuta— argitara emango ditu esleipenok. Edozelan ere, ikastegiko zuzendariak bermatuko du ikasle guzti-guztiek esleituko zaiela tutore bana.



FACULTAD DE BELLAS ARTES
ARTE EDERREN FAKULTATEA

- 3.3. Irakaslearen ardura izango da ikasleari lanaren ezaugarriak azaltzea, lana egiteko orientazioa ematea eta hark zehaztutako helburuak betetzen dituela zaintzea, bai eta lanaren jarraipena egitea eta defentsaren aurretik txostena idaztea ere. Txostena ikasleari helaraziko zaio.
- 3.4. GRALeko tutorea izango da graduan eskolak ematen dituen sail bateko irakasle bat edo gradua irakasten den ikastegiari atxikita dagoen irakasle bat.
- 3.5. Ikasleak GRALeko tutore bat baino gehiago izan ahalko ditu
- 3.6. Unibertsitateko beste sail edo ikastegi batzuetako doktoreek ere zuzendu ahalko dituzte GRALak, baldin eta tutorekide bat badago, Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzeari buruzko Graduan eskolak ematen dituen sail batekoa, edo gradua irakasten den ikastegiari atxikia.
- 3.7. Ikasleak GRAL osoa edo zati bat UPV/EHU ez den erakunde batean egiten badu, praktika hitzarmen baten barruan, unibertsitateaz kanpoko pertsonak tutorizatu ahalko diote, baina kasu horretan 3.4 ataleko baldintzak betetzen dituen tutorekide bat egon beharko da.
- 3.8. Irakasle bakoitzak gehienez hamabi GRAL tutorizatu ahal izango ditu (bakoitzagatik 0.25 ECTS aitortuko zaizkio, eta, beraz, denera gehienez 3 ECTS). Irakasleei GRALak esleitzerakoan kontuan hartuko dira haien irakats betebeharrak, hartara banaketa orekatua izan dadin.

4. artikulua. EPAIMAHAIA

- 4.1. Sailek, ikastegiko zuzendaritzarekin batera, eratuko dituzte epaimahaiak. Ahal den neurrian kontuan hartuko dituzte hizkuntza irizpideak eta irakasleak lanaren gaiaren arlokoak edo gertukoak izatea. Edonola ere, bermatu egin beharko da epaimahaiak egongo direla bi hizkuntza ofizialetarako.
- 4.2. Epaimahai bakoitzean hiru kide titular eta gutxienez ordezeko bat egongo dira, guztiak ere gradua ematen den ikastegiko irakasleak. GRALeko tutorea ez da inoiz egongo berak gidatu duen ikaslearen epaimahaian.

5. artikulua. GRADU AMAIERAKO LANAREN AURKEZPENA ETA DEFENTSA

- 5.1 Ikasturte bakoitzeko egutegi akademikoan zehaztutako epean, ikasleak GRALa entregatu beharko dute tutorearen saileko idazkaritzan paperean eta euskarri informatikoan, edo, lanaren izaerak hala eskatzen duenean, beste euskarri batean. **Honako hauek entregatu beharko dira:**



FACULTAD DE BELLAS ARTES
ARTE EDERREN FAKULTATEA

- Igo artxiboa ADII biltegira,

- Lan idatziaren kopia, fakultateko gradu amaierako lanen erakusketarako, bertan erakustea erabakiko balitz.

Lan idatziaren azalean datu hauek jarri beharko dira:

ARTE EDERREN FAKULTATEA

UPV/EHU

Gradu Amaierako Lana. Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzeari buruzko Gradua.

Lanaren izenburua.

Ikaslearen izen-deiturak.

Tutorearen izen-deiturak eta sailaren izena.

Ikasturtea.

UPV/EHUren anagrama.

Aurkezpenerako oinarrizko arau hauek bete ezean, sailtako idazkaritzek atzera bota ahal izango dute lana, akatsak zuzendu edo falta dena osatu arte. Saileko idazkaria arduratuko da lanaren kopia bana bidaltzeaz epaimahaiko kideei.

- 5.2. Ikasle bakoitzak epaimahaiaren aurrez aurre egin beharko du bere GRALaren defentsa.
- 5.3. Graduan eskolak emateko erabili diren hizkuntzetako edozeinetan egin, aurkeztu eta defendatu ahal da lana (tituluaren egiaztapeneko memorian ezarritakoaren arabera,) baldin eta hizkuntza horiek menperatzen dituzten epaimahaiak osatu ahal badira, betiere. Edonola ere, GRALa autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan idatzi eta defendatzeko eskubidea bermatuko da.
- 5.4. Ikasleak hamabost minutu izango ditu gehienez defentsa egiteko, eta tarte horretan bere lanaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azaldu beharko ditu. Gero, epaimahaiko kideen galdera, argibide eske, komentario edo iradokizunei erantzun beharko die.

7. artikulua. EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA

- 7.1. Ikaslearen aurkezpena bukatutakoan eta zuzendariaren txostena ikusitakoan, epaimahaiak ikasleari eman beharreko kalifikazioa eztabaidatuko du, Gradu Amaierako Lanaren gidan argitaratutako irizpideen arabera eta tituluaren egiaztapeneko memorian ezarritakoari jarraituz.



FACULTAD DE BELLAS ARTES
ARTE EDERREN FAKULTATEA

Kalifikazioa jartzeko alderdi hauek baloratuko dira proportzio honetan:

- % 70: dokumentuaren kalitatea.
- % 30: defentsako ahozko azalpena

Ebaluazioaren alde guztiak irakasgaiaren gidan jasota daude.

7.2. Ikasleak lana suspenditzen badu, epaimahaiak txosten bat emango dio ikasleari lana hobetzeko iradokizunekin, ikasleak lana egokitu dezan eta berriro aurkez dezan ebaluaziorako. Zuzendariari ere bidaliko zaio txosten horren kopia bat.

7.3. Kalifikazioa 0tik 10era bitartekoa izango da, hamartar bakarrarekin, eta letraz ere adierazita, eskala honen arabera:

0 - 4,9: suspentso (S).

5,0 - 6,9: nahiko (N).

7,0 - 8,9: oso ongi (O).

9,0 - 10: bikain (B).

"Ohorezko matrikula" aipamena eman ahal izango da, UPV/EHU-n Gradu Amaierako Lana Prestatzeko eta Defendatzeko Araudian adierazten denaren arabera. Araudi hori Graduako Entseguetarako Kudeaketaren Araudiaren barruan dago, dagokion ikasturterako.

7.4. GRALen azken kalifikazioen berrikuspen edo erreklamaziorako UPV/EHUko ebaluazio arauari jarraituko zaie.

8. artikulua. GRALa eta IKASLEEN MUGIKORTASUNA

GRALa egiten duten bitartean (4. mailako 2. lauhilekoan) beste unibertsitate batzuetara mugitzeko interesa daukaten ikasleei horretarako aukera bermatzen saiatuko da Arte Ederren Fakultatea, salbuespenez eta aplikatu beharreko arautegiek hala baimentzen duten neurrian. Ikasleok harrera ikastegian egin ahal izango dute lana, baina defentsa UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatean egin beharko dute. Egoera horretan dagoen ikasleak GRALaren tramite guztiak egin beharko ditu (izena eman, matrikula egin, defentsarako eskaria aurkeztu eta abar), eta komunikazio ona eta etengabea izan beharko du bere zuzendariarekin.

9. artikulua. ANALISIA ETA HOBETUNTZA



FACULTAD DE BELLAS ARTES
ARTE EDERREN FAKULTATEA

Ikasturtea amaituta, Akademia Antolakuntzako dekanordeak txosten bat aurkeztuko du GRALei buruzko datu nagusiak bilduta:

GRALa egiteko eskarien kopurua.

Defendatutako GRALen kopurua.

Zuzendarien zerrenda eta gidatutako GRALen kopurua.

GRALeko epaimahaietan parte hartu duten irakasleen zerrenda.

Gorabeherak eta oharrak.

Hobetu beharrekoak.